

# **EPAILEAREN ETXEA**

## **Bram Stoker**



Bram Stoker

JATORRIZKO TITULUA: THE JUDGE'S HOUSE

Itzultzailea: Iñigo Lizarribar Imaz

© Marjinalia Bilduma

© Iñigo Lizarribar Imaz

2024. urtea (ekaina)

# **EPAILEAREN ETXEA**

Azterketa egiteko garaia hurbiltzen ari zela, Malcolm Malcolmsoni bururatu zitzaion tokiren batera joatea lasai irakurri ahal izateko. Ez zen fio kostako xarmaz, ezta landa eremuko isolamendu absolutuaz ere, eta beraz, herri txiki ezezagun bat aurkitzeko hautua egin zuen, ezerk ez ziezaion arreta galarazi. Ez zien lagunei aholkurik eskatu, suposatzen zuelako iradokizun haiek jada ezagunak zitzaizkion lekuetara eta pertsonengana eramango zutela. Malcolmsonek ez zuen adiskiderik nahi, ezta lagunen lagunen atentzioa erakartzerik ere. Beraz, bilaketa bere kabuz egitea erabaki zuen. Maleta bat prestatu zuen arroparekin eta behar zituen liburuekin, eta ondoren txartel bat erosi zuen tren geltokiko irteeren zerrendan ikusi zuen lehen herri ezezagunera joateko.

Hiru ordu igaro ondoren, Benchurchera heldu zenean, poztu egin zen, bazekielako bere aztarnak

bakean ikasten jarraitu ahal izateko bezain ondo ezkutatu zituela. Zuzenean joan zen herri loti hark zuen ostatu bakarrera, eta han igaro zuen gaua. Benchurch hiru asterik behin jendez betetzen zen herritxo merkataria zen, baina gainontzeko hogeita bat egunetan desertuak adinako interesa zuen herri hark. Malcolmson paseatzera atera zen hurrengo goizean, Bidaiari Ona izeneko ostatua baino isilagoa eta bakartiagoa zen beste lekuren baten bila. Bere isiltasun desira biziak asebeteko zituen leku bakarra topatu zuen; egia esan, isiltasuna ez zen hitzik egokiena nahi zuena deskribatzeko: mortu hitzak zehatzago definitzen zuen bilatzen ari zen hura. Etxe irregular eta astun bat zen, estilo jakobinokoa, gablete trinko eta leiho bereziki txikiak zituena, estilo honetarako ohi baino altuago kokatuak zeudenak. Eraikuntzarako adreilu lodiz eginiko horma batez inguraturik zegoen. Egiazki, patxadaz aztertzerakoan, etxe arrunt baten itxura baino gehiago, gotorleku baten itxura zuen. Baina Malcolmsonnek atsegin zuen hura guztia.

—Hauxe duk zehazki —pentsatu zuen— bila  
nenbilen lekua, eta erabiltzeko aukera izango banu,  
pozik geratuko nindukek.

Haren poza are handiagoa bilakatu zen jabetu  
zenean, zalantza izpirik gabe, bertan ez zela inor  
bizi.

Posta bulegoan arduradunaren izena lortu zuen,  
zeina, hau bai bitxia, harritu egin zen etxebizitza  
haren parte bat alokatzeko eskaera entzun zuenean.  
Carnford jauna, bertako abokatua eta etxearen  
arduraduna, jaun zahar adeitsu bat zen eta norbaitek  
etxe hura alokatzeko intentzioa izateak asko poztu  
zuela aitortu zuen.

—Egia esan —azpimarratu zuen— izugarri  
poztuko ninduke, jabeen izenean, etxea edonori urte  
batzuetarako uzteak, ezer kobratu gabe utzi ere,  
inguruko jendea etxe honetan norbait bizi dela  
ikustera, bederen, ohitu dadin. Horrenbeste denbora  
darama hutsik, nolabaiteko aurreiritzi negatibo  
zentsugabe bat sortu da etxearen inguruan, eta  
egoera hori konpontzeko modurik egokiena norbait

bertan bizitzea da. Nahiz eta —gehitu zuen— etxea zeu bezalako akademiko batek denboraldi baterako soilik alokatu, hori ere ona izango zen etxearen izen onarentzat.

Malcolmsoni ez zitzaion beharrezkoa iruditu “aurreiritzi zentzugabe” horren inguruan galdetzea; bazekien informazioa beste nonbait lortuko zuela, nahi izanez gero.

Hiru hilabeteko alokairua ordaindu zion, ordainagiria jaso, eta emakume baten izena ere eman zion gizonak, agian, etxea “zainduko” zuen emakume baten izena. Eta horren ondoren, giltzak patrikan zituela atera zen.

Ostatuaren jabearengana, pertsona alai eta atsegin harengana, jo zuen, bertako dendei buruz eta beharko zituen bizigaiei buruz aholku eman ziezaion. Emakumeak besoak altxatu zituen harrituta, ostaturik non egon behar zuen aipatu zionean.

—Ez, Epailearen Etxean ez! —oihukatu zuen, eta esatearekin batera nabarmen zurbildu zen.

Etxe inguruak deskribatu zizkion, esanez ez zuela izen hura ezagutzen. Amaitzean emakumeak erantzun egin zion:

—Bai, ez dago zalantzarik... Leku bera da, zalantzarik gabe! Hain juxtu ere, Epailearen Etxea da.

Gazteak etxe hartaz hitz egiteko eskatu zion, zergatik deitzen zen horrela eta zergatik zen horren txarra. Emakumeak erantzun zion hala esaten ziotela, herrian duela urte asko —ezin zuen zehazki esan duela zenbat urte, herrialdeko beste toki batetik etorria zelako, baina ehun urte baino gehiago izan behar zirela, gutxienez— epaile beldurgarri baten etxea izan zelako. Oso epai gogorak emateagatik eta Assizeko epaitegietan presoekiko erakusten zuen etsaitasunagatik ezaguna. Zehatz-mehatz etxearen arazoa zein zen, ez zekien esaten. Behin baino gehiagotan galdetu zuen, baina inor ez zen kontu horren gaineko informaziorik emateko gai izan. Hala

eta guztiz ere, bazen herrian halako susmo bat, etxe hartan *zerbait* zegoela zioena. Eta emakumeari zegokionez, berak ez luke etxe hartan bakarrik ordu bat bera ere igaroko, ezta Drinkwater Bankuko diru guztiaren trukean ere. Orduan, barkamena eskatu zion Malcolmsoni bere hizketa aztoragarriagatik.

—Adeigabea da nire aldetik zuri, jaun gazte eta jator horri, hau esatea, baina hara bakarrik bizitzera joatea... Nire semea izango bazina, eta barkatuko didazu hau ere, ez zenuke etxe hartan gau bat bera ere igaroko, horretarako han dagoen alarma kanpaia nik neuk jo beharko banu ere!

Emakume adeitsu hark hain ageriki serio hitz egiten zuen eta hain ziren onak haren intentzioak, non Malcolmson hunkitu egin zen, nahiz eta entretenigarria iruditu zitzaion emakumeak esandakoa. Adeitasun handiz azaldu zion zenbat eskertzen zuen berarekiko interesa, eta hau gehitu zuen:

—Baina, nire Witham andere kutuna, ez duzu zertan kezkatu nigatik! Tripos matematika-



azterketarako prestatzen ari den gizon batek gauza gehiegi ditu bere buruan aipatu dituzun “gauza” misterioitsu horiengatik kezkatuta egoteko. Matematikak ikastea hain da zehatza eta prosaikoa, non oso zaila den buruan inolako zirrikiturik uztea bestelako edozein misterioentzat. Progresio armonikoek, funtzio eliptikoek, permutazioek eta konbinazioek badute jada nahikoa misterio niretzat!

Witham andereak bere zereginekin jarraitu zuen, eta Malcolmson berriz joan zen gomendatu zioten andere zaharrarengana. Pare bat ordu igaro ondoren, emakume zaharrarekin Epailearen Etxera iritsi zenean, Witham anderea topatu zuen hainbat gizonekin batera itxaroten. Fardelak zekartzaten eta tapizari laguntzaile batek ohe bat ere ekarri zuen gurdi batean. Emakume lagunkoiak azaldu zionez, nahiz eta mahaiak eta aulkiak ongi egon litezkeen, berrogeita hamar urtez aireztatu ez den ohe bat ez da toki egokia hezur gazteek atsedean har dezaten. Nabarmena zen jakin-min handia zuela etxea barrutik ikusteko, eta “gauza” haiei zien beldurra

agerikoa bazen ere, etxe osoa goitik behera ikusi zuen. Beti ere Malcolmsonen alboan, zaratarik txikiena entzun orduko haren besoari heldu beharra sentitzen zuelako.

Etxea arakatu ondoren, Malcolmosonek jangela handian gelditzea erabaki zuen, behar guztiak asetzeko nahikoa zen eta. Witham anderea, garbiketaz arduratzen zen emakume baten laguntzaz, Dempster anderearen laguntzaz hain zuzen ere, gela antolatzen hasi zen. Fardelak ekarri eta ireki ondoren, Malcolmsonek ikusi zuen andereak, aurreikuspen handiz eta eskuzabaltasunez, hainbat egunetarako jakiak ekarri zituela bere sukaldetik. Alde egin aurretik zorte ona opa zion adeitasun handiz Malcolmsoni, eta atera iritsi zenean, buelta eman eta hauxe esan zion:

—Agian, jauna, gela zabala denez eta haize korrontek dabiltzanez, ondo egongo litzateke gauze bionbo horietako bat jartzea ohe inguruan. Nahiz eta, egia esan, ni neu hil egingo nintzatekeen, halako eremu klaustrofobikoan goitik, behetik eta alboetatik

niri begira-begira dauden... dauden “gauzak” ikusiko banitu! —irudikatutakoa gehiegizkoa zen emakume haren nerbioentzat, eta ziztu bizian alde egin zuen.

Dempster andereak sakon hartu zuen arnasa eta aurpegi harroz, Witham anderea urruntzen ari zela, esan zuen, erreinu osoan ez zegoela bera beldurtzeko moduko espektrorik.

—Neuk esango dizut zer diren, jauna: espektroak mota eta era askotako gauzak dira... espektroak izan ezik! Arratoiak eta saguak, eta kakalardoak, eta kirrinka egiten duten ateak, eta baldosa solteak, eta beira apurtuak, eta tiradera gogorak; irekita utzi eta gau erdian erortzen diren horietakoak. Ikusi gelako estaldurak! Zaharrak dira... ehunka urte dituzte! Ez duzu usteko hor arratoi edo kakalardorik ez dagoenik? Ikusiko ez dituzula uste al duzu? Nik diotsut, arratoiak dira espektroak, eta espektroak, arratoi; eta ez sinetsi bestelakorik!

—Dempster anderea —esan zuen Malcolmsonek serio, agur sotil bat eginez— eskarmentu handiko

abeltzain batek baino gehiago dakizu! Eta uztazu esaten, zure bihotz eta buruaren dudarik gabeko zentzutasuna estimatzen dudala adierazteko, zeure kabuz etxe honetan geratzen utziko dizudala nire egonaldiaren azken bi hilabeteetan, lau aste besterik ez ditut behar eta.

—Zinez eskertzen dizut, jauna! —erantzun zuen emakumeak— baina ezingo nuke nire etxetik urrun gau bat bera ere igaro. Greenhow ostatuan bizi naiz, eta gau bakarra gelatik kanpo igaroko banu, daukadan guztia galduko nuke. Arauak oso zorrotzak dira, eta asko daude gela libre baten zain. Ezin naiz arriskatu. Horregatik bakarrik, plazer handiz etorriko nintzateke zutaz arduratzera hemen zauden bitartean.

—Nire andere maitea —esan zuen Malcolmsonen premiaz—, hona bakardadean egoteko asmoz etorri naiz. Eta sinetsidazu esaten dizudanean bihotzez eskertzen diodala Greenhow zenduari hain ongi antolatutako ongintza, eta horregatik ezin dut aldi

berean onartu halako tentaziorik! San Antonio bera ere ezingo litzateke argiagoa izan honetan!

Emakume zaharrak zakarki egin zuen barre.

—Ai, gazteak beti gazte! —esan zuen— ez zaituzte ezerk beldurtzen; aurkitu nahi zenuen bakardadea izango duzu hemen, dudarik gabe.

Eta hau esan ondoren, garbiketa lanetan hasi zen. Gaua iritsi zenean, Malcolmson paseatsetik itzuli zenean (beti eramaten zuen aldean ikasteko erabiltzen zituen liburuetako bat), gela txukun eta erratza pasata aurkitu zuen. Sua piztuta zegoen etxe zaharrean, lanpara ere bai, eta mahaia jarrita zegoen, Witham anderearen hornidura bikainekin.

—Hau bai hau konforta —esan zuen eskuak igurtziz.

Afaltzen bukatu zuenean, kazuela eraman zuen haritzezko mahaiaren beste izkinara, berriz ere liburuak atera, suari egur gehiago bota, lanpararen metxa moztu eta ikastaldi gogor baterako prestatu zen. Ia etenik gabe jarraitu zuen hamaikak arte, sua

berpizteko momentu batez geratu zen arte. Lanpara ere berpiztu zuen eta te kikara bat prestatu zuen. Betidanik izan zen te zalea eta bere bizitza akademikoan zehar askotan geratu ohi zen berandu arte ikasten, eta tea hartzen, gaueko ordu txikiak arte. Gainerako guztia luxutzat jotzen zuen eta naturaltasun handiz gozaten zuen. Biziberritutako suak salto egiten zuen su zipriztinak botaz, gela erraldoi eta zaharrear zehar itzal bitxiak proiektatuz. Tea edaten zuen bitartean, bere kideengandik bakarturik egoteaz gozaten zuen. Orduan nabaritu zuen lehen aldiz arratoiak egiten zuten zarata.

—Ziur aski —pentsatu zuen— ez ditek zaratarik egin ikasten aritu naizen denbora guztian. Hala izan balitz, nabaritu izango nikean!

Une hartan, zarata areagotu zenean, bere burua konbentzitu zuen, pentsatuz, zarata hura benetan berria zela. Agerikoa zen hasiera batean arratoiak ezezagun baten presentziagatik izaturik egon zirela, baita suaren eta lanpararen argiagatik ere; baina

minutuak igaro ahala ausartago bilakatu ziren eta orain lasai asko jostatzen ziren.

Zer nolako egonezina zuten! Hotsei erreparatzea besterik ez zegoen! Gora eta behera horma zaharren atzetik, sabaiaren gainetik eta zoruaren azpitik, korrika, hozkaka eta harramazkaka! Malcolmsonek barre egin zuen bere golkorako Dempster anderearen esana gogora ekartzen zuen bitartean: «arratoiak dira espektroak, eta espektroak, arratoi!» Tearen eragina nabaritzen hasi zen orduan: nola suspertzen zizkion nerbio sistema eta adimena. Gustura ekin zion berriro ere lanari gaua amaitu aurretik eta, horrek eman zion segurtasun sentsazioarekin, gela xehe arakatzeko luxua onartu zion bere buruari. Lanpara eskuan zuela ibiltzen hasi zen, bere buruari galdetzen zion bitartean, nola ote zen posible horrelako etxe bitxi eta eder bat horren gaizki zainduta egotea. Haritzezko frisoaren panel zizelkatuak dotoreak ziren, eta ate eta leihoen gaineko eta alboko eremuak ederrak: ezohiko meritudunak. Erretratu batzuk zeuden hormetan,

baina halako hauts eta zikin geruzaz estalirik zeuden, non ezin zen haietan xehetasunik hauteman, ezta lanpara buruaren gainetik ahalik eta garaien altxatuta ere. Gela arakutzen ari zela, han-hemenka zirrikitu edo zuloren bat ikusten zuen, aldi batez arratoi baten begi argi eta distiratsuek blokeatzen zutena. Baina segituan desagertzen zen, eta jarraian, garrasi eta korrikaldi bat entzuten zen.

Baina gehien harritu zuena, hala ere, teilatuko kanpai alarma handiaren soka izan zen, gelako izkina batean, tximiniaren eskuinaldean zintzilik. Landutako haritzezko aulki altu bat hurbildu zuen eta eseri egin zen azken te kikara hartzeko. Amaitzean, sua atondu eta lanera itzuli zen, mahaiaren izkinan eserita, sua ezkerraldean zuela. Aldi batez karraskariek enbarazu egiten jarraitu zuten gelditu gabe korrika eginez, baina ohitu egin zen zarata hartara erlojuaren edo uraren mugimenduaren hotsera ohitzen garen bezala. Eta hain buru belarri zebilen lanean, non munduan ez zen besterik, ebazten ari zen problema baino.



Bat-batean begirada altxatu zuen, problema oraindik ebatzi gabe zegoen eta giroan egunsentia gauzatzear dagoen momentuko sentsazioa nabari zen; arima zalantzatiei horrenbeste beldur sorrarazten diena. Sua makal zegoen baina oraindik ere distira gorri bat zerion. Suari begira zegoen bitartean, ezustean izutu egin zen, nahiz eta Malcolmson odol hotzekoa izan.

Hor, tximiniaren eskuinaldean zegoen haritzeko bizkarralde luzeko aulkiaren ondoan, arratoi ikaragarri handi bat zegoen hari begira, adi, mehatxuzko begiradarekin. Uxatzeko asmoz mugimendu bat entseatu zuen, baina karraskariak ez zuen zirkinik ere egin. Orduan zerbait botatzeko keinua egin zuen: arratoia ez zen mugitu, baina odolbero, bere hortz handi eta zuriak erakutsi zituen, eta haren begi gupidagabeek lanpararen argia islatzen zuten, mendeku tankerako distiraz.

Malcolmson harritu egin zen, eta etxeko bertzuna hartuta harengana egin zuen korrika bertan akabatzeko asmoz. Hala ere, hura jotzera iristeko

denborarik gabe, arratoiak garrasi egin zuen gorroto oihartzun bortitz bat sorraraziz. Lurrera salto egin eta kanpaiaren sokatik gora igo zen, lanpara berdearen argiak argiztatzeko ez zuen iluntasunean desagertu arte. Aldi berean, arraroa izan arren, hormen atzealdeko arratzen pauso zaratzuak berriz hasi ziren.

Ordurako, Malkolmsonen arreta liburuetako problema haietatik urrun zegoen, eta oilar baten kantu kirrinkariak goiza iristear zegoela adierazi zionez, lotara joan zen.

Hain zegoen sakonki lotan, non Dempster anderea gela atontzeko bisitan etorri zitzaionean ere ez zen esnatu. Areak ere, Dempster andereak lekua garbitu, gosaria prestatu eta ohea inguratzen zuen bionboa leun jo zuen arte, Malcolmson ez zen esnatu. Apur bat nekaturik zegoen bart gaueko lanaldiaren ondorioz, baina te kikara batek azkar berpiztu zuen, eta liburua eskuartean zuela, goizeko paseoa ematera altxatu zen sandwich batzuk hartuta, afal ordurarte itzultzeko asmorik gabe. Herriaren kanpoaldean,

zumarrez josita zegoen bidezidor lasai bat aurkitu zuen eta handik igaro zuen egunaren parte handi bat Laplace ikasten. Itzultzean Whitam andereari bisita egin zion haren adeitasuna eskertzeko. Emakumeak erronbodun leihotik etxera hurbiltzen ikusi zuenean, harengana joan zen eta pasatzeko eskatu zion. Kezkati begiratu zuen eta burua astindu zuen hitz egiten zuen bitartean:

—Ezin duzu horrenbeste lan egin. Behar baino zurbilago zaude gaur goizean. Gauaren erdian esnatzea eta lanean gogor hastea ez da ona inorentzat! Baina, esan, jauna, zer moduz pasa duzu gaua? Ongi, espero dut. Baina, zin dagit, jauna, poztu egin naizela gaur goizean Dempster andereak esan didanean ongi eta sakonki lotan zeundela bera iritsi denean.

—O, oso ongi nengoen —erantzun zuen, irribarrez—, “gauzek” ez naute eragotzi, orain arte. Arratoiek bakarrik; zer nolako zirkoa zen hura, etxe osoan zehar zebiltzan. Deabrutxo gaizto eta zahar bat ikusi dut eta nire aulkian eseri da sutondoan. Ez

zuen alde egin nahi, ez behintzat bertzunarekin jarraika hasi natzaion arte eta orduan korrika igo da kanpaiaren sokatik gora, sabaiaren edo paretaren beste aldeko lekuren batera; ezin izan nuen ikusi nora, oso ilun zegoen.

—Erruki dadila gutaz Jainkoa! —esan zuen ozen Witham andereak—. Deabrutxo txiki bat, eta sutondoko aulkian eserita! Zaindu zeure burua! Txantxetan esandako hitzen atzean egia dago ezkutaturik.

—Zer esan nahi duzu? Zin dagit ez dudala ulertzen.

—Deabrutxo zahar bat! Deabrutxo zaharra, agian. Entzun! Jauna, ez dago barre egiteko beharrik — izan ere, Malcolmsonnek barre alai bat egin zuen—. Gazteoi oso erraza egiten zaizue zaharrak ikaratzen dituzten gauzez barre egitea. Ahaztu, jauna! Ahaztu ezazu! Jainkoak nahi dezala betiko barre egin dezazun. Hori da opa dizudana! —eta andere adeitsua gaztearen alaitasunak kutsatu zuen, momentu batez haren ikarak uxatuz.

—O, barkaidazu! —esan zuen azkar Malcolmsonek—. Ez nazazu lotsagabetzat hartu, baina ideia hori gehiegizkoa zen niretzat, deabrua bera aulkian eserita egon zela! —eta berriro ere barre egin zuen idea entzutean. Ondoren etxera itzuli zen afaltzera.

Gau hartan arratoien zalaparta goizago hasi zen, izan ere, jada hasita zegoen hura iritsi zenerako, eta gizakiaren presentziaren berritasunagatik bakarrik geratu zen zarata. Afaldu ondoren, sutondoan eseri zen tartetxo batez eta erre egin zuen; ondoren, mahaia garbitutakoan, lanari ekin zion berriz ere. Baina oraingo honetan arratoiek aurreko gauean baino enbarazu gehiago egin zioten. Korrika zebiltzan alde batetik bestera, gora eta behera, eta nola gainera! Garrasika eta harramazka egiten eta hozka egiten! Ikustekoa zen nola hurbiltzen ziren, geroz eta ausartago, zulo eta pitzadura eta fisura eta zoko guztietatik aterata, eta horrekin batera, nola argizatzen ziren haien begiak lanparen gisa, suaren garraren handitze eta txikitzearekin batera. Baina,

Malcolmsontzat, dudarik gabe arratoien presentziara guztiz ohitua, begi haiek ez zuten gaizto itxurarik; haien izateko era jostalariak hunkitu egin zuen. Batzuetan, ausartenak zorura edo paneletako molduretara ateratzen ziren. Gutxi batzuetan, zalapartak sortutako enbarazua gehiegizkoa zenetan, Malcolmsonek zarata bat egiten zuen arratoiak uxatzeko, eskuaz mahaia jotzen zuen edo “hsh, hsh” basati bat egiten zuen, beren arratoi zuloetara itzul zitezzen.

Horrela igaro zen gauaren lehen zatia; nahiz eta zarata oso presente egon, Malcolmsonek geroz eta gehiago murgiltzen ari zen lanean, eta buru belarri jarraitu zuen jo eta ke.

Bat batean, aurreko gauean bezala, geratu egin zen, bat-bateko isiltasunagatik larrituta. Ez zegoen hozkada, harramazka edo garrasi bat bera ere entzuterik. Isiltasuna hilobi batean nola. Aurreko gaueko momentu bitxiaz gogoratu zen eta senez sutondoko aulkirantz begiratu zuen. Orduan sentsazio arraro bat sumatu zuen.

Han, haritzezko aulki landuaren bizkarraldearen gainean, aurrekoan begirada makur bat bota zion arratoi bera zegoen eserita.

Senezko indar batez eskura zuen logaritmo liburu bat hartu, eta jaurti egin zion. Liburuak hain ibilbide eskasa marraztu zuen, non arratoiak ez zuen zirkinik ere egin; une horretan aurreko gaueko bertzunarekin ekintza bera errepikatu zuen; eta berriro ere arratoiak bere burua arriskuan ikusi zuenean, kanpaiaren sokatik ihes egin zuen. Modu arraro berean, arratoiaren ihesari gainontzekoen zalapartak jarraitu zion. Oraingo honetan, aurrekoan bezalaxe, Malcolmsonek ezin izan zuen jakin gelako zein lekutatik joan zen arratoia, izan ere, bere lanpara berdearen pantailak gelaren goiko zatia ilunpean uzten zuen, eta gainera sua jada ia itzalirik zegoen.

Erlojuari begira, ikusi zuen ia gauerdia zela eta, distrakzioari garrantzi handirik eman gabe, sua eta bere te kikara prestatu zituen. Ordurako lanaren zati handi bat aurreratuta zeukan eta zigarro bat erretzeko eskubidea onartu zion bere buruari;

orduan, sutondoko haritzezko aulki handian eseri zen, zigarroz lasai gozatzeko. Erretzen zuen bitartean pentsatu zuen gustatuko litzaiokeela jakitea arratoiak nondik ihes egin zuen, izan ere, hurrengo egunean tranpa batzuk jartzeko hainbat ideia bururatu zitzaizkion. Beraz, beste lanpara bat piztu eta suaren eskuineko paretaren goialdea ongi argiztatzeko moduan jarri zuen. Ondoren, berekin zeramatzan liburu guztiak hartu eta eskura utzi zituen arratoiari botatzeko asmoz. Azkenik, kanpaiaren soka jaso zuen, punta bat mahaiaren gainean jarri eta lanpararen azpian finkatu zuen. Sokarekin zebilen bitartean, ezin izan zuen ekidin soka oso malgua zela pentsatzea, batez ere kontuan izanez gero oso soka sendoa zela eta urteak zirela azkenekoz erabili zenetik.

—Gizon bat eseki litekek bertatik —pentsatu zuen bere artean.

Prestatze lanak amaituta, ingurura begiratu eta, gustura esan zuen:



—Ongi duk, laguntxo, oraingo honetan ziur nagok higandik zerbait ikasiko dudala!

Lana berrartu zuen eta, nahiz eta, hasieran bezala, apur bat distraitzen zuen arratoien zaratak, laster galdu zen proposizio eta problema artean.

Berriro ere arreta kolpean itzuli zitzaion ingurura. Oraingo honetan ez zen bat-bateko isiltasuna bakarrik izan; sokaren mugimendu lauso bat ere izan zen, eta lanpara apur bat mugitu zen. Zirkinik ere egin gabe, biratu egin zen bere liburu sorta eskura ba al zegoen ikusteko, eta ondoren soka aztertu zuen begiekin. Begira zegoen bitartean, arratoi handia ikusi zuen sokatik haritzeko aulkira salto egiten. Jarraian eseri eta Malcolmsoni begira-begira geratu zitzaion. Eskuinaz liburu bat hartu eta, kontu handiz apuntatuz, arratoiari jaurti zion. Hark, mugimendu bizi batez, albo batera salto egin zuen eta misila saihestu zuen. Orduan beste liburu bat hartu zuen, baita hirugarren bat ere, eta bata bestearen jarraian jaurti zizkion arratoiari, baina saiakera bakoitzean huts egin zuen. Azkenik, beste liburu bat jaurtitzeko

prest altxatu zenean, arratoiak garrasi egin zuen; izututa, itxuraz. Horrek are gehiago bultzatu zuen Malcolmson liburua jaurtitzera: liburuak hegan egin zuen eta arratoia jo zuen kolpe zaratatsu batez. Arratoiak ikaraz garrasi egin zuen berriz, eta haren erasotzaileari begiratu zion maltzurutasun beldurgarriz. Aulkiaren atzeko partetik igo eta salto handi bat egin zuen kanpaiaren sokaraino, handik gora ziztu bizian alde egiteko. Lanpara apur bat mugitu zen halako mugimendu bortitzaren ondorioz, baina pisutsua zenez, ez zen erori. Malcolmsonek begirada arratoiarengan mantendu zuen eta, bigarren lanpararen argiaz arratoia ikusi zuen frisoko molduretako batera salto egiten eta, jarraian, paretan zeuden erretratu handietako baten zulotik desagertzen. Erretratua ilunduta eta ikusgaitz zegoen hauts geruza eta zikinkeria zirela eta.

—Goizez bilatuko diat nire laguntxoaren gela — esan zion ikasleak bere buruari, liburuak jasotzen zituen bitartean—. Hirugarren erretratua tximiniatik hasita; ez diat ahaztuko —liburuak jaso zituen

banan-banan, haiei buruzko aipamenak eginez jasotzen zituen bitartean—. *Sekzio konikoak* zirudienez ez zian gogoko, ezta *Oszilazio zikloidalak*, ezta *Principia*, ezta *Kuaternioiak*, ezta *Termodinamika* ere—. Ikus dezagun arratoia jo duen liburua!

Malcolmsonek liburua altxatu eta begiratu egin zuen. Hori egiterakoan astindu bat nabaritu zuen eta ustekabean aurpegia zurbildu zitzaion. Ingurura begiratu zuen urduri eta izuturik, eta esan zuen ahopeka:

—Aitak eman zidan Biblia! Zer nolako kasualitatea.

Berriz ere lanean jarri zen, eta paretaren beste aldeko arratoiak korrika hasi ziren berriz. Hala ere, ez zuten Malcolmson eragozten; nolabait, haien presentziak konpainia sentsazioa sorrarazten zion. Baina ezin zuen arreta zereginean bildu, eta jorratzen ari zen ikasgaia menperatzen saiatu ondoren, utzi egin behar izan zuen desesperaturik,

lotara joateko asmoz, ekialdeko leihotik egunsentiko argia sartzen hasi zenean.

Loaldi sakon baina urduria izan zuen eta amets asko izan zituen. Dempster andereak esnatu zuenean, goizeko ordu batzuk igaroak zirela ikusi zuen egonezinik, eta minutu batzuk igaro arte, non zegoen ere ez zekiela zirudien. Gaztearen lehen eskariak apur bat harritu zuen zerbitzaria.

—Dempster anderea, gaur, ateratzen naizenean, eskailera hartzeko eta erretratu horiek garbitzeko edo hautsa kentzeko eskatuko dizut, bereziki tximiniatik hasita hirugarrena, zer diren jakin nahi dut eta.

Arratsaldeak aurrera egin ahala, Malcolmsonek bere liburuekin lan egin zuen itzaldun pasealekuan, eta arratsaldeak aurrera jarraitzen zuen heinean, aurreko eguneko kemena berreskuratzen joan zen, konturatu baitzen irakurketak erritmo onean jarraitzen zuela. Orain arte nahasgarriak egiten zitzaizkion problemak emaitza onak ematen zizkioten, eta aldarte alai horretan joan zen Bidaiari

Ona ostatura, Witham anderea bisitatzera. Ezezagun batekin egin zuen topo jabearen bizileku erosoan, Thornhill doktorearekin, esan ziotenez. Witham anderea ez zegoen guztiz lasai, eta doktorearen galdera zaparrada kontuan hartuta, ondorioztatu zuen medikuaren bisita ez zela kasualitate hutsa. Beraz, ustekabean, esan zuen:

—Thornhill doktorea, zure galdera guztiak erantzuteko atsegina emango dizut, zuk niri lehenik bat erantzuten badidazu.

Doktoreak harrিতuta zirudien, baina irribarre egin zuen eta momentuan bertan erantzun zuen.

—Nahi duan bezala! Bota, bada.

—Witham andereak eskatu al dizu ni ikustera eta aholkatzera etortzeko?

Thornhill doktorea harrিতuta geratu zen momentu batez, eta Witham anderea nabarmen gorritu zen eta ondoren beste leku batera begiratu zuen; baina doktorea gizon zintzo eta prestua zen, eta beraz azkar eta modu irekian erantzun zion:

—Hala duk, bai, baina ez zian nahi hik jakiterik. Litekeena duk nire presa baldarrak susmoak piztu izana. Witham andereak esan zidan ez zuela batere atsegin hi etxe horretan bakarrik egotea, eta baita ere, agian, te sendo gehiegi edaten duala. Areago oraindik, hiri, ahal dela, etxea uzteko gomendatzea eskatu zidan, baita lo-galtze etengabeak ekiditeko ere. Ni ere deboziozko ikaslea izan ninduan garai batean; beraz, pentsatzen diat lasai esan dezakedala, hi mintzeko inongo intentziorik gabe, unibertsitatetik pasa nintzelako, nik ere badakidala zer den gogor ikastea, eta horregatik gomendioa.

Malcolmsonek, irribarre handi batez, eskua aurreratu zuen.

—Amerikan esaten duten bezala, eman bostekoa!  
—esan zuen—. Eskerrak eman behar dizkizut zure adeitasunagatik eta baita Witham andereari ere, eta zuen arretak erantzun bat merezi du nire partetik. Zin egiten dut ez dudala te gehiago hartuko, ez behintzat zuek uzten didazuen arte, eta asko jota,

gaueko bederatzietarako oheratuko naizela. Nahikoa al da horrekin?

—Bikain! —esan zuen doktoreak—. Orain, kontatu guri etxe zaharrearan ikusi duan guztia.

Hortxe bertan, Malcolmsonek xehetasun guztiekin kontatu zien azken bi gauetan gertatutakoa. Une batzuetan Witham anderearen deiarrek mozten zuten kontakizuna, baina azkenean, Bibliarekin gertatutako pasarteak kontatu zirenean, etxeke jabearen barnean zeuden emozioek ihesbidea aurkitu zuten oihu baten bitartez; eta urarekin nahastutako kopa bat brandy eman zioten arte Witham anderea ez zen baretu. Thornhill doktoreak istorioak jarraitu ahala geroz eta beltzagoa zen aurpegieraz entzun zuen, eta kontakizuna amaitu zenean eta Witham anderea bere onera itzuli zenean, galdetu zuen:

—Arratoia beti igotzen al zen kanpaiaren sokatik?

—Bai, beti.

—Pentsatzen diat badakiala —esan zuen doktoreak pausa baten ondoren— zer den soka hori.

—Ez!

—Soka hori duk —esan zuen doktoreak motel—  
borreroak epailearen gorroto judizialaren biktima  
guztiekin erabili zuena.

Une hartan Witham anderearen beste garrasi batek  
eten zuen elkarriketa, eta neurriak hartu behar izan  
zituzten bere onera itzul zedin. Malcolmsonek  
erlajuari begiratu zion eta ohartu zen ia bazela  
afaltzeko ordua, eta erretiratu egin zen Witham  
anderea guztiz bere onera etorri aurretik. Witham  
anderea berpiztu zenean gogor egin zion errieta  
doktoreari, amorrus galdetuz zein asmorekin sartu  
zizkion gazteari halako ideia izugarriak buruan.

—Etxeko gauzak nahikoak dira bera beldurtzeko  
—gehitu zuen.

Thornhill doktoreak erantzun egin zion:

—Nire andere maitea, helburu zehatz bat nuen  
esan dudana esateko! Malcolmson jaunaren  
atentzioa sokara erakarri nahi nuen, arreta hor finka  
zezan. Litekeena da Malcolmson jauna urduriegi



egotea eta horregatik gehiegi ikasten aritu izana, baina aitortu beharra daukat gazte oso osasuntsua eta kondizio onekoa dela, bai fisikoki bai mentalki; ikusi dudan beste edozein bezalakoa... baina arratoiak... eta deabruaren inguruko sugestio hori — doktoreak burua astindu eta jarraitu egin zuen—. Lehen gaua berarekin igarotzeko eskaintza egingo niokeen, baina ziur nago gaizki hartuko zuela. Baliteke gauean zehar izu edo aluzinazioren bat sufritzea, eta hori gertatuko balitz, sokatik tira egitea nahi dut. Bakarrik egongo denez, behintzat abisu bat jasoko genuke, eta garaiz iritsiko ginateke laguntzeko. Ni berandu arte esna egongo naiz eta belarriak erne izango ditut. Ez zaitez izutu, Benchurch egunsentia baino lehen ustekabe bategatik esnatzen bada.

—O, doktore jauna, zer esan nahi duzu? Zer esan nahi duzu?

—Esan nahi dudana da posible dela, edo, hobeto esanda, litekeena dela, Epailearen Etxeko alarma-kanpai handia entzutea gaur gauean.

Eta horrekin doktoreak amaitutzat eman zuen elkarrizketa.

Malcolmson etxera iritsi zenean, nabaritu zuen ohi baino apur bat beranduago zebilela eta Dempster anderea jada joana zela: Greenhow ostatuko arauei jaramon egin behar zitzaien. Plazerez deskubritu zuen etxea garbi eta txukun zegoela, indarberritzeko moduko suarekin eta soka ongi mozturik zuen lanpara eta guzti. Arratsaldea apirilean espero zitekeen baino hotzagoa zen, eta haize-boladek areagotuz zihoan bortizkeriaz jotzen zuten, gauerako ekaitza besterik ezin zen espero. Iritsi ondoreneko lehen minutuetan, arratoien zarata geratu egin zen, baina gaztearen presentziara ohitu bezain laster berriro hasi ziren. Gustura entzuten zituen, izan ere, zalaparta horrekin haien konpainia sentitzen zuen, baina berriro ere konturatu zen zarata egiteari uzten ziotela, beste hura —begirada iluneko arratoi handia— eszenaratzen zenean. Irakurtzeko lanpara besterik ez zegoen piztuta, eta pantaila berdexkak sabaia eta gelaren goiko partea ilunpean

uzten zituen, etxeko argi biziak —pisutik sakabanatzen zenak— mahai gaineko oihal zurian distira epel eta atsegin bat islatuz. Malcolmson gosez eta espiritu alaiz eseri zen afaltzeko. Afaldu eta zigarro bat erre ondoren, lan egiteko asmoz eseri zen, ezerk molesta ezin zezakeela jakinda, izan ere gogoan zuen doktoreari eginiko promesa, eta beraz, denbora ahalik eta hoberen aprobetxatzeko helburua jarri zion bere buruari.

Gutxi gorabehera ordubetez oso ongi egin zuen lan, eta ondoren arreta galtzen hasi zen, bere liburuetatik harago. Gaztearen bizi kondizioak, haren egoera fisikoari buruzko iruzkinak eta haren nerbioen sentiberatasuna ezin ukatuzkoak ziren. Ordurako, kanpoko haizetea haize bortitz bilakatua zen. Etxe zaharra, oso sendoa izanik ere, zimentuetaraino iristen zen dardara pairatzen ari zen, eta ekaitzak orro egiten zuen etxeko tximinietan eta gablete bitxietan barna, zarata bitxi eta naturaz gaindikoak sortuz korridore eta gela hutsetan zehar. Sabai gaineko alarma-kanpai handiak ere nabaritu

behar izan zuen haizearen indarra, izan ere, sokak lausoki gora eta behera egiten zuen, kanpaia noizbehinka apur bat gehiago mugituko balitz bezala, eta azkenean, soka malgua lurrera erori zen zarata sakon eta huts bat ateraz.

Malcolmsonek hori guztia entzuten zuen bitartean, doktorearen hitzak gogoratu zituen: «Soka hori duk borroeroak epailearen gorroto judizialaren biktima guztiekin erabili zuena». Tximiniaren ertzera hurbildu zen, soka altxatu eta gertuagotik ikusteko. Sokak bazuen nolabaiteko erakargarrtasun leuna, eta han zutik zegoela, Malcolmson espekulatzen hasi zen:

—Nortzuk izango ziren biktima haiek? Zer nolako desira makabroa, halako erlikia iluna beti begibistan izatea ere —pentsatu zuen.

Malcolmsonek zutik jarraitzen zuen bitartean, teilatuko kanpaiaren joan-etorriak soka goraka eta beheraka mugitzen jarraitzen zuen; baina berehala zerbait berria hauteman zuen, nolabaiteko astindu bat sokan, sokatik zerbait mugituko balitz bezala.

Instintiboki begirada altxatu zuen. Malcolmsonek arratoi handia ikusi zuen berarengana hurbiltzen, berari begiratzeari utzi gabe. Soka askatu eta atzera egin zuen ahopeka madarikazio bat botaz, eta arratoiak bira eman zuen sokatik azkar igo eta desagertzeko. Momentu hartan bertan, Malcolmson konturatu zen arratoien zarata, une batez geratu egin zena, berriz ere itzuli zela.

Horrek guztiak pentsarazi egin zion, eta konturatu zen ez zuela arratoiaren ezkutalekua ikertu, ezta erretratuak begiratu ere, nahiz eta asmoa hori izan. Beste lanpara piztu zuen, pantailarik gabekoa eta, altu sostengatuz, tximiniatik hasita hirugarren zegoen koadroa ikustera joan zen, eskuineko aldetik, bertatik ikusi baitzuen aurreko gauean arratoia ihes egiten.

Begiratu orduko horren azkar egin zuen atzera, non ia lanpara jausi zitzaion, eta zurbiltasun hilgarri batek estali zion aurpegia. Belaunak dardarka zituen; kopetatik izerdi tanta lodiak zerizkion eta guztiz kikilduta geratu zen. Baina, gaztea eta ausarta zenez,

azkar etorri zen bere onera, eta etenaldi baten ondoren lanpara altxatu zuen eta, jada hautsik gabe eta garbi zegoenez, oraingoan, xehetasun guztiz ikusten zen irudia aztertu zuen.

Eskarlatazko katazuri mantuarekin jantzitako epailearen erretratua zen. Haren aurpegia latza eta gupidagabea zen, gaiztoa, zuhurra eta mendekatia, aho sentzuala zuen, eta kako itxurako sudur gorrixka, formagatik, hegazti harrapari baten irudia gogorarazten zuen. Aurpegiaren gainontzekoak gorpu kolorea zuen. Begiek distira berezia zuten eta aurpegiera benetan maltzurra zen. Begiak ongi behatu ondoren, Malcolmson paralizatu egin zen, arratoi handiaren begien isla ikusi baitzuen. Lanpara gutxigatik ez zitzaion eskuetatik jausi, momentu hartan ikusi baitzuen arratoia erretratuaren izkinako zulotik irteten mendekuz beteriko begiekin, eta gainontzeko arratoien zarataren falta sumatu zuen. Hala eta guztiz ere, arnasa hartu eta koadroaren azterketarekin jarraitu zuen.

Epailea haritzezko aulki handi landu batean eserita ageri zen, sekulako harrizko tximinia baten eskuinean, eta izkinan sabaitik esekita soka bat, zeinaren muturra lurrean kiribilduta zegoen. Izuaren pareko sentsazioa sorrarazi zion Malcolmsoni orain zegoen gelako eszena zela ikusteak, eta ingurura begiratu zuen nahasirik, bere atzean presentzia arraroren bat aurkitzea esperoko balu bezala. Ondoren tximiniaren izkinara begiratu zuen eta, garrasi bortitza botaz, lanpara erortzen utzi zuen.

Han, epailearen aulkian, soka atzean zintzilik zuela, arratoia zegoen eserita eta bere begietan epailearen begi maltzurak igarri zituen, oraingoan begirada are deabruzkoago eta sutsuagoarekin. Kanpoko ekaitzaren uluaz gain, gelan isiltasuna besterik ez zen.

Lurrean zegoen lanparak Malcomson susperrarazi zuen. Zorionez metalezkoa zen eta ez zuen oliorik isuri. Hala ere, hartaz arduratzeko nahiak pentsamenduak lasaiarazi zizkion. Itzali zuenean,

kopetako izerdia garbitu eta une batez gogoeta egin zuen:

—Hau ez zoak ongi —esan zion bere buruari—. Honela jarraituz gero, ero urrikari bihurtuko nauk. Gelditu beharra zeukaat! Hitza eman nioan doktoeari ez nuela terik hartuko. Ene, arrazoi zian! Nire nerbioak ohiz kanpoko egoera batera iristeko zorian egon dituk. Arraroa duk nabaritu ez izana. Nire bizitza osoan ez nauk hain ongi sentitu. Hala ere, dena ongi zegok orain. Ez nauk berriz horren inozoa izango.

Orduan, urarekin nahastutako baso bat brandy atera zion bere buruari eta ziurtasunez lanean jarri zen.

Ordubete igaro zen burua liburu artetik altxatu zuenerako, ustekabeko lasaitasunagatik harrituta. Kanpoan, haizeak ulu egiten zuen, inoiz baino bortitzago jotzen zuen eta euria erruz irristatzen zen leihoetatik, txingorra balitz bezala kristala joaz; baina barruan ez zen zaratarik entzuten, tximinia handitik zebilen haizearen oihartzunaz gain, eta noiz



behinka, handik sartzen ziren tanten hotsa, ekaitza baretzen zen momentuetan. Sua ahuldu egin zen eta ez zuen sugarrik botatzen jada, nahiz eta oraindik distira gorrixka bat zerion. Malcolmson adi zegoen, entzuten, eta bat-batean garrasi txiki bat entzun zuen, oso ahula. Soka zintzilik zegoen gelako izkinatik zetorren, eta pentsatu zuen sokak zoru gainean eragindako zarata izango zela, kanpaiaren kulunkek eraginda, soka altxatu eta berriro erortzen uzten zuenean. Hala ere, gora begiratzean, hilzorian zegoen argitan arratoia ikusi zuen, sokatik zintzilik, soka karraskatzen ari zela. Soka ia guztiz janda zegoen, eta hari argiangoak zituen soka zatia ikusi ahal izan zuen. Bere begien aurrean lana bukatua zuen arratoiak, eta moztutako muturra haritzezko zorura erori zen zarata handia ateraz. Aldi berean, arratoia beste muturretik helduta zegoen, kanpaimihia balitz bezala, alde batera eta bestera kulunkatuz. Malcolmson konturatu zenean kanpokoei laguntza eskatzeko era bakarra moztuta zegoela, ikara hutsa sentitu zuen, baina berehala amorru sutsu batek ordezkatu zuen beldur hura eta,

irakurtzen ari zen liburua hartu eta karraskariari jaurti zion. Kolpea ongi kalkulatu zuen, baina misilak jo aurretik, arratoiak salto egin eta zorura erori zen zarata mutu bat ateraz. Malcolmson momentuan bertan harengana korrika hasi zen, baina arratoiak ihes egin eta gelako itzalen artean ezkutatu zen. Malcolmsonek gau hartako lana amaituta zegoela sentitu zuen eta errutinaren monotonia etetea erabaki zuen karraskaria ehizatuz. Lanparari pantaila berdea kendu zion, argia ahalik eta gehien sakabana zedin ziurtatzeko. Hau egitean, gelaren goiko zatiko iluntasuna uxatu zuen eta argitasun berri horrekin, aurreko ilunpea baino askoz hobe, hormako erretratuak nabarmen gailendu ziren. Zegoen lekutik, Malcolmsonek pare-parean ikusi zuen tximiniatik hasita hirugarren zegoen erretratua. Begiak igurtzi zituen harrituta, eta orduan beldur ikaragarri batek hartu zuen.

Koadroaren erdigunean kafe koloreko mihise espazio irregular bat zegoen, markoan tenkatua izan zenean bezain fresko. Atzealdeak berdin jarraitzen

zuen, aulkia, tximiniaren ertza eta soka zeuden bertan, baina epailea ez zegoen jada.

Malcolmsonek, erabat izututa, motel eman zuen buelta eta orduan dardarka hasi zen konbultsioak pairatuko balitu bezala. Indarrak desagertu zitzaizkion. Ezin izan zuen zirkinik ere egin, eta pentsatzea ere kostatzen zitzaion. Ikusi eta entzun besterik ezin zuen egin.

Han, haritzeko bizkarralde luzeko aulkian eserita, epailea zegoen eskarlatatzko katazuri mantua soinean zuela, gorroto begirada nabari zitzaion begietan eta irabazle irribarre bat zuen aho krudelean margotua, eskuekin birreta beltz bat altxatzen zuen bitartean. Odolak bihotzetik zirkulatu nahi ez zuela sentitu zuen Malcolmsonek, suspense luze bat sentitzen denean bezala. Burrumba bat zeukan belarrietan. Kanpoan ekaitzaren orroa entzuten zuen eta, haren bitartez, herri-erdiguneko gauerdiko kanpaikaden zarata heldu zen. Amaigabea zirudien denbora tarte batez, hortxe geratu zen, mugitu gabe estatua baten gisa, arnastu ezinik eta begietan ikara bizia nabari

zitziola. Kanpaikada bakoitzarekin epailearen garaipen irribarra geroz eta nabarmenagoa egiten zen eta, azken kanpaikadarekin, birrete iluna jarri zuen.

Epailea motel baina ziurtasunez altxatu zen aulkitik eta lurrean zegoen kanpaiaren sokamuturra jaso zuen. Eskuak pasatu zituen soka gainetik, sokaren testura gustuko izango balu bezala, eta ondoren, ongi ikasitako mugimenduekin, muturretako batean korapilo bat egiten hasi zen. Ongi tenkatu eta oinarekin probatu zuen, pozik geratu zen arte, eta ondoren soka-laster bat egin zion, zeina eskuan hartu zuen. Une hartan mahaiaren albotik ibiltzen hasi zen, Malcolmson zegoen aldearen paretik, harengan begirada finkatuz beste aldera igaro arte, eta mugimendu azkar batekin ate parean egon zen arte. Malcolmson ihesbiderik ez zuela sentitzen hasia zen, eta zer egin beharko lukeen pentsatzen hasi zen. Epailearen begiek ez zioten hari begiratzeari uzten, eta halakoa zen Malcolmsonengan begi haiek eragiten zuten lilura,

non ezin zuen begirada aldendu. Epailera gerturatzeko ikusi zuen, beti ere beraren eta atearen artean, eta soka altxatzen ikusi zuen, soka jaurtiz bera harrapatu nahiko balu bezala. Esfortzu handiz Malcolmson alde batera mugitu zen eta soka bere alboan erortzen ikusi zuen haritzeko zoruaren kontra zarata gor bat eginez. Berriz ere epaileak soka altxatu zuen eta Malcolmson harrapatzen saiatu zen, eta saialdi bakoitzean nekez baino ez zuen lortzen ikasleak mugimendu azkarren bidez soka saihestea. Mugimendu horiek askotan errepikatu ziren, baina epaileak ez zuen neke edo etsipen zantzurik erakusten, katu batek arratoiarekin egiten duen bezala jolasten zebilela zirudien. Azkenean, etsita, nahikoa izan zuen eta, Malcolmsonen azkar batean bere ingurura begiratu zuen. Lanpara berpiztu egin zela zirudien eta nahikoa argi zegoen gelan. Estalduretako zirrikitu eta zuloetako sagutegietan arratoinen begiak ikus zitezakeen, eta ikuspen horrek, guztiz fisikoa izanik ere, apur bat baretu zuen. Begirada jaso, eta ikusi zuen kanpaiaren sokatik zintzilik arratoi mordoa zegoela. Zentimetro

bakoitza arratoiz estalita zegoen eta gehiago eta gehiago erortzen ziren sabaiko zulo txiki biribil hartatik, haien pisuak soka apur bat mugiarazteraino.

Talan-talan! Mihiak kanpaia jotzeko adina mugitu zuten soka arratoiek. Zarata oso leuna izan zen, baina kanpaiak hasi berria zuen kulunka, eta areagotuz zihoan. Kanpai hotsak entzunda, epaileak, orain arte begirada Malcolmsonengan finkatuta izan baitzuen, gorantz begiratu zuen eta deabruzko amorru keinu batek guztiz itxuraldatu zion aurpegiera. Haren begiek ikatzaren garren gisa egin zuten dirdira eta zoruan, etxe osoa astindu zuela zirudien kolpe bat eman zuen oinaz. Epaileak berriz ere soka altxatu zuenean trumoi baten hots ikaragarria entzun zen, eta arratoiak sokan gora eta behera korrika jarraitu zuten, euren denbora amaitzear zegoela pentsatuko balute bezala. Oraingoan, soka jaurti ordeztu, epailea biktimari hurbildu zitzaion sokaren korapiloa askatuta. Epailearen gertutasunak Malcolmsonen mugimenduak eragozteko eragina izan bide zuen,

gaztea zurrun geratu baitzen gorpu baten gisa. Epailearen hatz hotzak nabaritu zituen lepoan, soka doitzen zion bitartean. Korapiloa geroz eta gehiago estutzen zen. Orduan epaileak, ikaslearen gorputz zurruna besoetan hartu eta zutik jarri zuen haritzeko aulkian, eta, haren alboan zutik, besoa luzatu zuen sabaitik kulunkan jarraitzen zuen sokamuturrari heltzeko. Eskua altxatzean, arratoiek garrasika egin zuten ihes, eta sabaiko zulotik desagertu ziren. Malcolmsonen lepoa inguratzen zuen sokaren muturra hartu, kanpaiaren sokarekin batu, eta, azkenik, jaitsi eta aulkia bultzatu zuen.

\*\*\*

Epailearen Etxeko alarma-kanpaia joka hasi zenean, jendetza bildu zen berehala. Mota guztietako zuziak eta lanparak agertu ziren, eta handik gutxira jendetza azkar batean hurbiltzen hasi zen. Bortizki jo zuten atea, baina ez zuten erantzunik jaso. Orduan atea bota eta jangela handira sartu ziren, doktorea lehenengo.

Hantxe zegoen ikaslea, kanpai handiaren sokamuturretik zintzilik, eta erretratuko epailearen aurpegian irribarre gaizto bat zegoen.